

## Mitxel Kartzakorta irakasleak liburu bat argitaratu du euskarazko prosa komunikagarriago egiteko

2008/02/03

Horrela deitzen da **Mitxel Kartzakorta** irakaslearen azken liburua: Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (1), eta Udako Euskal Unibertsitateak argitaratu berri du, Hizkuntzalaritza sailean. Liburuaren egileak hainbat proposamen egiten ditu hor euskal prosa arintzeko, komunikagarriago egiteko, eta adibide eta ariketa asko ekarri ditu, erakusteko zelan konpondu esaldien **atzerakarga**.

Alderatuz gero edozein albo-hizkuntzarekin, euskara ajez eta gaitzez josita dago, eta, askotan, nekez irakurtzen ditugu euskarazko testuak, alperreko kargaz antolatzen ditugu-eta. Hortik abiatzen da Mitxel Kartzakorta liburu honetan. Eta arazo hori konpontzeko, atzerakarga deritzon ordena informatibo okerra, egileak aztertuko ditu artikuluetako hasiera-perpauak, lehen perpauak, aldizkari-egunkarietatik hartutakoak.

### Egilearen proposamena

Eta zein da egilearen proposamena atzerakarga konpontzeko, esaldiak irakurterazagoak egiteko? Hauxe: "Informazio-gune batek (izena edo aditza) osagarri bat badauka aurrean alperrik kokatuta, testuinguruak eskatu barik, eta hori dela-eta, behar baino nekezago irakurtzen bada perpausa, zergatik ez erabili osagarri hori gune atzean, eta horrela irakurketa egin errazagoa, arinagoa?". **Problema** hau ez da gramatikala, **informatiboa** baino. Adibide bat:

- Neure burua ondo jagon ezik, [gehienez hiru urteko bizia daukadala] **esan dit** medikuak.
- Medikuek esan dit [gehienez hiru urteko bizia daukadala], neure burua ondo jagon ezik.

Atzerakargak arintzeko, egileak erabiltzen ditu baliabide bat baino gehiago: ahozkoak (batez ere *eta* juntagailua) eta baita jantziagoak ere (*zein... bait-/-(e)n, non... bait/(e)n, ezen... -(e)la*).

### Liburua

**Sarrera** eta **bibliografiaz** gain, liburuak bi atal nagusi ditu: **unitateak** (teoria, adibideak eta ariketak) eta **soluzioak**. Bai unitateek eta bai soluzioek 15na atal dituzte. Lan interesgarria kazetaritza eta komunikazioan dabilzan guztientzat, egileak ehunka adibide erabiltzen baititu erakusteko zelan idatzi argi, garbi eta arin.

### Mitxel Kartzakorta

**Lekeition** jaio zen, eta urte asko darama euskara irakasten: Zubi Zahar ikastolan, Ondarroan, Santo Tomas Lizeoan, Donostian, eta, aspalditik, HUHEZIn, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Artikulu asko argitaratu ditu galdegaiaren inguruan Uztaro, Zutabe eta beste aldizkari espezializatuetan.

